



ORTUELLAKO UDALA

IRAGARKIA

Udalaren osoko bilkurak, 2009ko irailaren 28ko batzarrean, behin-behinean onartu zituen Zerga eta Tasak arautzen dituzten Zerga Ordenantzen aldaketak eta Prezio Publikoak arautzen dituzten Ordenantzen moldaketak, biek 2010ko urtarrilaren 1etik aurrera eraendu dezaten, eta Kudeaketa, Diru-Bilketa eta Ikuskapenei buruzko Ordenantza.

Horren gaineko espedienteak jendaurrean azalduko dira, ondoko artikuluetan agindutakoaren arabera: 1) Tokiko Ogasunei buruzko 5/1989 Foru Arauaren 16.1 artikulua; eta 2) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua, Tokiko Gobernu Modernizatzeko Neurrien gaineko 57/2003 Legeak aldatu zuena. Espedienteak iragarki-oholean jarriko dira hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita. Adierazitako epe horretan, interesdunek espedienteak aztertu eta egoki iritziko dieten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Aipatutako epean erreklamaziorik egiten ez bada, aldaketa behin betikoa izango da, udalbatzak beren-beregi hala erabaki zuelako eta Tokiko Ogasunei buruzko 5/1989 Foru Arauaren 16.3 artikulua ere hala agintzen duelako.

Hauexek izango dira jendaurrean azalduko diren espedienteak:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza.
- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza.
- Hiri-lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza.
- Jabari Publikoaren Erabilera Pribatiboaren edo Aprobetxamendu Bereziaren Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Agirien Kopia edo Inprimaketaren Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Udal Hilerriaren gaineko Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Ibilgailuak Bide Publikoetatik Kentzearen, Ibilgetzearen eta Udal Instalazioetan Uztearen Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Saltokien Irekiera Baimenaren gaineko Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Estolderiaren gaineko Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Hirigintza Baimenaren gaineko Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Zarama Bilketaren gaineko Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Auto Taxien Baimenaren gaineko Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Kontrolatu gabeko Abereak Jasotzearen gaineko Tasa arautzen duen Zerga-Ordenantza.
- Animaliak edukitzearen eta babestearen gaineko ordenantza.
- Eguneko Zentroaren eta Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren prezioak arautzen dituen Ordenantza.
- Zerbitzu publikoen prezioak arautzen dituen Ordenantza.
- Kudeaketa, Diru-Bilketa eta Ikuskapenei buruzko Ordenantza.

Ortuellan, 2009ko urriaren 30ean.

Alkatea,
Oskar Martínez